

Kultur teologia

kultur antropologok, bereziki R. Benedict-ek, landutako kontzeptua; zera adierazten du: kultura bakoitzean bertako elementu osagarriek hartu duten taxuera berezia, kultura bera nolabait definitzen duena, eta gizartearen biziera era berezi eta koherentez irudikatzen duena. Kultura bakoitzaren berezitasunaren funtsa eta ezaugarria da irudiera. Kultur eredia ere esan daiteke.

Ik. Akulturazioa; Kultur asimilazioa.

Kultur teologia

Paul Tillich-ek irarritako esakunea, giza natura abstraktu eta estatikoaren gain egin izan omen den teologia tradizionalaren kontra, gizaki konkretu historiko-kulturadunari begira egiten den teologia baieztatzeke. Kulturaren barnean dago jainkozko grazia, horren ustez; giza kulturaren barnean eta horren bidez agertzen den Baldingabearen *agerkudeari buruzko gogoeta sistematikoa da *teologia. Kultur dinamikaren barnetik egiten da kultur teologia: Jainkoaren hitza edo errebelazioa ez bait du kanpoko zerbit, autorearen ustez. Alde horretatik, teologia "apologetiko edo dialogala" eta kultur teologia berdindu egiten ditu autoreak.

Teologia osoaren forma da kultur teologia, eta ez horren parteren bat; ez da kulturaren teologiarekin berdintzekoa. Kultura eta Herri bakoitzari dagokion teologiazko gogarte sistematikoa bideratzeko beharrezkoa da kultur teologiaren oinarri teorikoa baieztatzea eta finkatzea.

Kultur trukea

Ik. Transkulturazioa, 1.

Kultura eta erlijioa

Mende honetako Kultur Antropologiak, orokorki, zer osotzat hartzen du kultura bakoitza, maila ezberdinetako osagarritz eratu.

Erliziozko alorretik harturiko adibide batez zehaztuko dugu formulazio abstraktu hori:

- erlijiozko *opari odolezkoa egiteko haiztoa behar da: tresna horren forma edo materiala izan daiteke kulturaren osagarri-rik xehena, oraindik tresna hori zertarako ez dakigularik: xehetasun horri deritzagu item (ingelesetik hartua);

- haiztoaren item hainbatek eratzen dute oparigintzarako egokia den tresna, xede horrekin egina: horri deritzagu kultur elementua;

- haiztoak eta beste hainbat elementuk

(odol-ontzia, garbitzeko ura, mahaia, eta abarrek), bateratuz eta xede zehatz horretarako ipinita osotzen dute oparitarako tresneria, kulturazko multzoa izendatzen duguna;

- oparia egiteko, ordea, tresneria erabiliko duen hainbat lagunek hartzen du parte (*apaiza, laguntzailea, *fededunak, etab.) bakoitza bere eginkizuna betetzen, kulturazko beste multzo bat eratuz; era berean hirugarren multzoa osotzen dute, esate baterako, oparigintzan egikaritzen diren zeremonia eta keinu eta *otoitzek; multzo guzti horiek oparigintzarako bateratzen, eratzen dute oparia bera, kulturaz erakundea deitzen duguna;

- erlijio bakoitzean, berriz, opariarekin batera beste hainbat "erakunde" daude (*hierarkia, *kredoak, penitentzia, etab.); horiek guztiek bateratuz osotzen dute erlijio jakin bat, kulturazko sistema izendatzen duguna;

- hainbat kultur sistema bateratuz (sistema etikoa, ideologikoa, politikoa, artistikoa, teknologikoa, ekonomikoa, etab.) kultura jakin bat eratzen dute.

Item-a, elementua, multzoa, erakundea, sistema: guztiek daukate kulturaren osotasunean beren itxura, beren esanahia, beraien erabilera eta beren funtzioa, osotasunari begira. Guztien artean eratzen dute kultura jakin baten osaera eta egitura.

Horrela ulertzen baldin bada kultura, argi dago erlijioa ezin datekeela kulturatik bereiz: kulturaren beste sistemekin lotuta dago; eta bere funtzioa betetzen du kulturaren funtzionamendu osoan. Bestalde, erlijioaren beraren eraketa kultura osoan betetzen duen funtzioaren araberakoa izango da. Erlijioaren ikusker a eta horren araberako analisisa oso zabaldurik dago gaur egun erlijioaren zientzietan: Kultura jakin bakoitzeko sistema espezifikotzat baina ez apartekotzat ikustea, alegia.

Ikusker horrek ondorio bereziak dakartza erlijioaren azterketarako. Horietako batzuk aipatuko ditugu hemen:

a) Erlijioaren erlatibotzea... Sistema zabalagoren baten barnean eta horren funtzioan egotean, erlijiozkoaren eraketa ez da beregaina eta ezin daiteke azter beste sistema kulturazkoak kontutan eduki gabe.

b) Erlijioaren erabilera ideologikoa... Hau da, erlijiozkoak baliatzea beste sistema kulturalak (politikoa, ekonomikoa, etikoa, etab.) zuritzeke eta estaltzeko.

c) Aldaketa soziala eta erlijioa... Hau da, kulturazko aldaketa orokorrak eta horren barruko sistemaren bateko aldaketak erlijiozkoaren eraketan eragina dute derrigo-

rrez. Horregatik gizartearen krisi sozial-kulturazkoan erlijiozko mugimendu berriak sortu eta zabaldu ohi dira.

d) Erlijioaren transmisioa... Kulturazko sistema guztiei lotuta badago erlijioa, horren transmisioa ere akulturazio osoaren barruan egingo da. kultura osoaren eraketa eta dinamikak egiten du orduan erlijiozkoaren transmisiorako bidearena. Eta ez dauka erlijioak bere transmisio-bide apartekorik.

Esandako guztiaren ondoren, zenbait galdera egin daiteke, orain hemen erantzun ezin duguna:

a) Erlijiozkoa ez baldin bada kulturaren barruan "sektore" apartekoa, eta bai horren funtzio orokorretako bat, osotasunari begira, funtzio izate horretan agortzen ote da erlijiozko sistemarena? Eta *sekularpen modernoaren mugimendua erlijiozkoaren funtzio hori ukatzera ote dator, bide batez erlijiozko sistema bera suntsituz?

b) Kultur Antropologiak erlijiozko sistemari kultura osoan ematen dion lekuak eta kulturaren barruan erlijiozkoari buruz egiten duen analisiak, sistema honen autonomia zenbateraino ukatzen du? Mundu "sakratuaren" trszendentzia erabat ukatzen ote da horrela kulturako beste sistema "profanoei" buruz?

c) Galdera horien larriari erantzun nahian sortu da kristau-teologian ere beste arazo hau: Zer da kristautasuna, erlijioa ala fedea? Eta zein harreman dago fedearen eta erlijioaren artean? Fedea ote da kultura sekulartuaren "erlijioa"? Ik. Kristautasuna.

Ik. Sakratua/Profanoa; Erlijioa eta erlijioak.

Paulo Agirrebaltzategi

Kulturalismoa

A.E.B. etako kultur antropologiaren halako joera da, kultura bakoitzaren ezaugarriak, hark gizabanakoengan dituen eragineak eta adierazpenetatik ateratzen saiatzen dena. Psikologiaren eta psikoanaliaren argitan aztertzen dute bereziki kultura; eta hauetako bakoitza sistema osotu eta bereizitatzat hartzen dute.

Batzutan honetara ulertzen da kulturalismoa: kultura gizartetik aparteko sistema autonomo superorganikotzat hartzen duen teoria. Eritzi horretakotzat jo izan da batzutan Kroeber antropologoa.

Ik. Kultura eta erlijioa.

Kulturalkuntza

Errebelaturiko egiaren eta fedearen historiko bihurtzea da: leku eta garai jakineko

kultur erakunde eta sistematan mamitzen eta adierazten dira orduan. Erlijio errebelatuak trszendentetzat hartzen ditu erlijiozko egia eta fedea: ez historiatic sortutzat; baina derrigorrez kultura eta hizkuntza historikotan azaldu beharra daukate, kulturaztatuturik eta nolabait kultural (historiko) bihurturik.

Ik. Kulturaztapena; Misio-laneko moldaera; Salbamen-historia.

Kulturaztapena

M. Herskovits antropologoak ingelesez sorturiko enculturation hitzaren ordaina.

1. Sin.: Enkulturazioa, kulturbarnerapena. Gizabanakoari dagokionez, kultura jakin baten barnean haztea eta kultura horretaz janztea eta jabetzea adierazten du. Adiera honetan, norberaren heziera hitzak duen esanahi bereetsua du.

Norberaren kulturaren prozesuari edota beste kulturaren bati moldatzea ere kulturaztapena esaten da.

2. Zerbaiti dagokionez, "kanpotiko" halako idea, balio, erakunde, arau, etab. kultur sistema jakin batera moldatzea. Kristau-mezu errebelatuari eta trszendenteari --kulturaz gaindikoari-- buruz erabili ohi da bereziki. Ik. Kulturalkuntza; Misio-laneko moldaera.

Kulturgabekuntza

Sin.: Dekulturazioa

Herri, gizarte edo norbanakoren batek bere kultura jatorra galtzeko prozesua da, kultura arrotzen batek horren lekua hartzen duelako. Ordezkapen-prozesua izan ohi da gehienetan.

Ik. Akulturazioa.

Kulturgintza

Gizatalde jakin baten edota gizadi osoaren kultur garapena adierazten du. Kultura bera da, baina bizian ikusita, hau da; bilakera bizia eta gizabanakoaren eta gizataldearen ekintza eta sorkuntza denez.

Kulturkampf

Bismarck, Prusiako kantzilerraren gobernuaren garaian, Alemanian 1872-79 urteetan, estatuaren eta Eliza katolikoaren artean gertaturiko gatazka, kantzilerrak bere esku-menpean eduki nahi bait zuen Eliza. Istiluaren barruan hainbat lege antikatoliko eman zituen estatuak: ezkontza zibilari buruzkoa, *klerikoen kultur examina estatalari buruzkoa, jesuitak kanpora bota zituen, etab.